behatokia
OBSERVATORIO VASCO VIVIENDA



ERAIKUNTZA SEKTOREA EUSKADIN

2025 eta 2026. urtearen hasiera



EDUKIEN AURKIBIDEA

1.-	ERAIKUNTZA SEKTOREAREN JARDUERA EKONOMIKOA	**4**
2.-	ENPRESA EGITURA ETA SORTUTAKO ENPLEGUA	**6**
3.-	ETXEGINTZA ETA BIRGAITZE JARDUERA	**8**
4.-	ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INPAKTUA SEKTOREAN	**13**
5.-	SEKTOREA BULTZATZEKO ESTRATEGIAK	**16**
6.-	ONDORIOAK	**21**



Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa Euskal Autonomia Erkidegoko merkatuko prezioaren araberako benetako BEGaren eta eraikuntza-sektorearen balio erantsiaren bilakaeren alderaketa. Urte arteko aldakuntza-tasa. 2010-2024-2025 (kateatutako bolumenaren indizea) 4
2. grafikoa. EAEko eraikuntza-sektorearen urteko BEGa. 2011-2025 (Prezio korronteak. Mila euro) 5
3. grafikoa. EAEko eraikuntza-sektorearen pisu erlatiboa. 2023-2025 (EAEko BEGaren gainean) 5
4. grafikoa. Euskadiko eraikuntza-sektoreko establezimendu kopuruaren eta ekonomiako establezimenduen guztizko kopuruaren bilakaera 2008-2025 (erreferentziazko urteko urtarrilaren 1eko datuak) (establezimendu kopurua eta aldakuntza-tasak) 6
5. grafikoa. Euskadiko eraikuntzaren sektorearen enpresa-sarearen pisuaren bilakaera Euskadin 2008-2025 7
6. grafikoa. EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua eraikuntzaren sektorean. 2010-2026 (II. hiruhilekoa). (Milaka pertsona eta EAEko enpleguaren gaineko pisu erlatiboa) 7
7. grafikoa. Enpleguaren aldakuntza-tasa Euskadin: oro har eta eraikuntzaren sektorean. 2006-2025 7
8. grafikoa. Obra-lizentzien bilakaera. 2010-2025 8
9. grafikoa. Obra Handien lizentzien bilakaera Euskadin, obra motaren arabera. 2010-2025 9
10. grafikoa. Obra-lizentziak eraikuntza-sektoreko obra motaren arabera. 2023-2026 (I. hiruhilekoa) 10
11. grafikoa. Obra Handien lizentzien aurrekontu osoa Euskadin. 2019-2025 11
12. grafikoa. Hasitako etxebizitza libreak. 2015-2025 12
13. grafikoa. Amaitutako etxebizitza libreak. 2015-2025 12
14. grafikoa. Euskadin babes motaren batekin hasitako etxebizitzen bilakaera. 2015-2025 12
15. grafikoa. Euskadin babes motaren batekin amaitutako etxebizitzen bilakaera. 2015-2025 12
16. grafikoa. Eraikuntzako kostuen indizea EAEn. 2011-2025 13
17. grafikoa. EAEko etxegintzaren sektoreko lehengaien kostuen indizea eta eskulanaren kostua. 2015-2024 14
18. grafikoa. Eraikuntza-kostuen indizea 2025-2026an* 15

1.- ERAIKUNTZA SEKTOREAREN JARDUERA EKONOMIKOA


Eraikuntzaren sektoreko Balio Erantsi Gordinak (BEG) indar handiz egin zuen gora 2025ean, eta % 3,7ko hazkundea izan zuen

Eraikuntzaren sektoreak nabarmen egin zuen gora 2025ean, aurreko urteetako emaitzak hobetuz. Zehazki, Euskadiko eraikuntzaren sektoreko jarduera ekonomikoak % 3,7ko hazkundea izan zuen BEGan, eta 2024ko hazkunde-tasa gainditu (urte hartakoa % 2koa izan zen) zuen.

Bilakaera positibo horrek garrantzi handiagoa du. Izan ere, kontuan izan behar dugu EAEko ekonomia moteldu egin zen garaian gertatu zela; izan ere, Euskadiko ekonomia % 2,3 hazi zen, 2024an baino erritmo motelagoan (urte hartako gorakada-tasa % 2,6koa izan zen).

2026ko lehen hiruhilekoan, sektorearen hazkunde-dinamikan nolabaiteko moteltzea antzeman da: urte arteko % 2,5eko hazkunde-tasa izan du, 2025eko hiruhileko berarekin alderatuta. Edonola ere, sektoreak Euskadiko ekonomia osoaren (+% 2,1) gainetik hazten jarraitzen du.


1. grafikoa Euskal Autonomia Erkidegoko merkatuko prezioaren araberako benetako BEGaren eta eraikuntza-sektorearen balio erantsiaren bilakaeren alderaketa. Urte arteko aldakuntza-tasa. 2010-2024-2025 (kateatutako bolumenaren indizea)



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak

Bilakaera positibo horri esker, eraikuntzaren sektoreak 2025eko ekitaldian 5.000 milioi euroko langa nabarmen gainditu zuen produkzio-maila lortu zuen. Beste nolabait esanda, Atzeraldi Handia hasi zenetik, datu nominaletan lortutako erregistro handiena lortu zuen.


2. grafikoa. EAEko eraikuntza-sektorearen urteko BEGa. 2011-2025 (Prezio korronteak. Mila euro)



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak

Sektorearen jardueraren bilakaera positiboaren ondorioz, sektoreak EAEko BEG osoan duen pisu erlatiboa handitu egin da, eta 2025ean EAEko ekonomiaren % 5,6 izatera iritsi zen; hau da, 2024an baino ehuneko hamarren bat gehiago.

3. grafikoa. EAEko eraikuntza-sektorearen pisu erlatiboa. 2023-2025 (EAEko BEGaren gainean)



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak

2. ENPRESA EGITURA ETA SORTUTAKO ENPLEGUA


Eraikuntzaren sektoreko enpresa-sareak jaisten jarraitu zuen 2025ean

Eraikuntzaren sektorea osatzen duten establezimenduen kopurua etengabe murrizten ari da 2008an Atzeraldi Handiak izan zuen eraginaz geroztik. Salbuespen-urte bakarra 2019a izan zen, urte hartan establezimenduen kopuruak gorakada txikia izan baitzuen.

2008ko krisiak, sektoreari zuzenean eragin zionak, ia 10.000 establezimendu desagertzea ekarri zuen 2008tik 2022ra bitartean. Ordutik, establezimenduen kopurua murrizteko joera motelagoa izan da, baina etengabea, 2025era arte.

2024 eta 2025 artean, 357 establezimendu galdu ziren sektorean. Eustaten DIRAEk emandako datuen arabera, 2025ean guztira 19.076 establezimendu zeuden erregistratuta; hau da, % 1,8ko beherakada izan zen 2024an zenbatutako 19.433 establezimenduekin alderatuta.

4. grafikoa. Euskadiko eraikuntza-sektoreko establezimendu kopuruaren eta ekonomiako establezimenduen guztizko kopuruaren bilakaera 2008-2025 (erreferentziazko urteko urtarrilaren 1eko datuak) (establezimendu kopurua eta aldakuntza-tasak)




Iturria: Eustat. DIRAE

Epe luzeko ikuspegitik, sektoreak jasandako krisiaren tamaina ikus daiteke. Izan ere, orduko krisi hark gaur egun eragina du sektorearen produkzio-ahalmenean, EAEk behar dituen etxegintzako erronkei erantzuteko. 2008az geroztik, 15.000 establezimendu baino gehiago galdu dira. 2008an ia 35.000 establezimendu zeuden, eta, beraz, 17 urteko epean, % 45eko beherakada izan da.

Establezimenduen beherakadaren joera hori EAEko ekonomia osoan ere gertatu da. Dena den, eraikuntzaren sektorearen kasuan, nabarmen handiagoa izan da joera hori. EAEko ekonomiaren kasuan, establezimenduen kopurua 2008an 200.000tik gorakoa izatetik 165.000 ingurura jaitsi zen 2025ean; hau da, % 17,5eko beherakada izan zuen datua ehunekotan ematen badugu. Horrela, eraikuntzaren sektoreko enpresek Euskadiko enpresa-sare osoan duten pisu erlatiboa ehuneko 5,4 puntutan jaitsi zen. Beste era batera azalduta, hona hemen datua: 2008an EAEko ekonomiako establezimendu guztien % 17 ziren, eta 2025ean, berriz, % 11,6.

5. grafikoa. Euskadiko eraikuntzaren sektorearen enpresa-sarearen pisuaren bilakaera Euskadin 2008-2025




Iturria: Eustat. DIRAE


Enpleguak, aldiz, bilakaera oso positiboa izan du 2025ean eta 2026ko hasieran, eta 65.000 enpleguren kopurura iritsi da (2011tik izandako datu onena).

Eustatek emandako datuen arabera, eraikuntzaren sektoreak 60.000 pertsonari eman zien lana 2025ean, 2024an baino 3.800 pertsona gehiagori. Horrek esan nahi du urte bakarrean % 6,8ko hazkunde-tasa handia izan zuela. Dinamika positibo horrek bere horretan jarraitu du 2026aren hasieran, are dinamismo handiagoarekin; izan ere, 65.000 landun baino gehiago daude sektorean 2026ko bigarren hiruhilekoan. Enplegua sortzeari dagokionez, sektoreak 2011tik izan duen erregistrorik onena da.

6. grafikoa. EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua eraikuntzaren sektorean. 2010-2026 (II. hiruhilekoa). (Milaka pertsona eta EAEko enpleguaren gaineko pisu erlatiboa)



7. grafikoa. Enpleguaren aldakuntza-tasa Euskadin: oro har eta eraikuntzaren sektorean. 2006-2025



Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta


3. ETXEGINTZA ETA BIRGAITZE JARDUERA

2025ean, obra handietarako 3.877 lizentzia zenbatu ziren EAEn, Eusko Jaurlaritzaren Eraikuntza eta Etxebizitza Estatistikaren arabera (EEEE); horrek esan nahi du jarduera-maila maximo historikotik (2023an lortutakoa) oso hurbil geratu zela.

Zehazki, lizentzia kopuruak % 0,3 egin zuen gora 2025ean (2024an baino 11 lizentzia gehiago); beraz, konpentsatu egin zen 2024an izandako % 0,4ko jaitsiera, eta sektorearen jarduera 2023ko maximo historikotik oso hurbil jarri zen (orduan 3.883 lizentzia erregistratu ziren).

8. grafikoa. Obra-lizentzien bilakaera. 2010-2025

Sektorea, guztira




Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Etxegintzaren eta Etxebizitzen Estatistika

Batez ere birgaitze-sektorearen bultzadak ahalbidetu du azken urteotan jarduera-maila handi hori; aldiz, etxegintzaren sektorearen bilakaerak, obra berriko lizentzien arabera aztertuta, bilakaera negatiboa izan du. 2025ean, birgaitze-jarduerak inoizko mailarik gorena lortu zuen, guztira obra handiko 3.474 lizentzia erregistratu baitziren. Hala ere, hazkundea oso moderatua izan zen, 2024an baino 18 lizentzia gehiago baino ez baitziren erregistratu.

Aldiz, obra berriko lizentzien kopuruak berriro egin zuen behera 2025ean: guztira 335 lizentzia zenbatu ziren; hau da, % 3,2ko jaitsiera egon zen 2024an erregistratutako obra berriko 346 lizentziekin alderatuta. Nolanahi ere, beherakada-tasa hori 2023an eta 2024an izandako jaitsierak baino nabarmen moderatuagoa izan zen (-% 25ekoa eta -% 10ekoa, hurrenez hurren).

9. grafikoa. Obra Handien lizentzien bilakaera Euskadin, obra motaren arabera. 2010-2025




Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Etxegintzaren eta Etxebizitzen Estatistika

2026ko lehen hiruhilekoan, etxegintza-jarduerak hazkunde handia izan du

2026ko lehen hiruhilekoan, guztira 992 obra-lizentzia erregistratu dira sektore osoan; horrek gorakada txikia dakar 2025eko hiruhilekoetako lizentzien batezbestekoarekin alderatuta (969 lizentzia/hiruhileko). Beraz, 2026ko ekitaldia 2025ean baino jarduera-maila handiagoarekin hasi dela esan dezakegu. Hurrengo hilabeteetan baieztatu beharko da hiruhilekoan izandako gorakada horrek bilakaera ere hobetzea eragiten duen (EEEEren hiruhilekoko hurrengo datuek erakutsiko dute).

Ildo horretan, azpimarratzekoa da 2026ko lehen hiruhilekoan obra berriko lizentzien kopuruak izandako bilakaera positiboa: hiruhileko bakoitzeko 100 lizentziaren langa gainditu du, 2025ean erregistratutako lizentzien batezbestekotik nabarmen gora (urte hartan, 83 lizentzia erregistratu ziren hiruhileko bakoitzeko).

10. grafikoa. Obra-lizentziak eraikuntza-sektoreko obra motaren arabera. 2023-2026 (I. hiruhilekoa)



Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritza


Etxegintza-jarduerak eragin ekonomiko oso positiboa du EAEko ekonomian, eta jarduera ekonomikoa eta enplegua bultzatzen ditu eraikuntzaren sektorearekin lotutako hainbat sektore osagarritan, industriatan eta zerbitzutan.

Horrekin lotuta, obra-lizentziei lotutako aurrekontuak aukera ematen digu etxebizitzen etxegintza-jarduerak nahiz birgaitze-jarduerak zuzenean sortzen duten jarduera ekonomikoaren bolumena gutxi gorabehera kalkulatzeko. 2025eko datuek emaitza positiboa erakusten dute etxegintza-jardueraren kasuan.

Ildo horretan, obra berriko lizentziekin lotutako jarduerak, hau da, etxegintza-jarduerak, sortutako aurrekontu ekonomiko agregatua hazi egin zen 2025ean, eta guztira 901 milioi eurokoa izan zen (2024koa, aldiz, 897 milioi eurokoa izan zen). Beraz, aurretik aztertutako lizentzien datuek jarduera modu neurritsuan murriztu dela adierazten duten arren, jardueraren magnitude ekonomikoa pixka bat hazi da.

Aldiz, obra handiko lizentziekin lotutako birgaitze-jardueraren aurrekontu agregatuak beherakada nabarmena izan zuen 2025ean: 2024ko 805 milioi eurokoa izatetik 636 milioi eurora jaitsi zen 2025ean.


11. grafikoa. Obra Handien lizentzien aurrekontu osoa Euskadin. 2019-2025



Iturria: Etxegintzari eta etxebizitzari buruzko inkesta, Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.


Oraindik behin-behinekoak diren hasitako eta amaitutako etxebizitzei buruz eskuragarri dauden datuetatik abiatuta, adieraz daiteke 2025ean amaitutako etxebizitza libreen kopurua (3.053 etxebizitza) 2025ean hasitako etxebizitzen kopuruaren (3.073 etxebizitza) antzekoa dela, eta 3.000 etxebizitzako kopurua gainditzen dutela.

12. grafikoa. Hasitako etxebizitza libreak. 2015-2025



Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritza


13. grafikoa. Amaitutako etxebizitza libreak. 2015-2025



Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritza


Aldiz, babes motaren bat duten etxebizitzen kasuan joera positiboagoa erregistratu da datozen urteetarako, eta 2025ean hasitako etxebizitzen kopurua (1.460) amaitutako etxebizitzen kopurua (1.254) baino handiagoa da. Nolanahi ere, 2025ean 2024an baino etxebizitza gutxiago hasi eta amaitu dira.

14. grafikoa. Euskadin babes motaren batekin hasitako etxebizitzen bilakaera. 2015-2025



Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritza

15. grafikoa. Euskadin babes motaren batekin amaitutako etxebizitzen bilakaera. 2015-2025



Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritza


4. ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INPAKTUA SEKTOREAN

Eraikuntzaren sektoreak 2022ko energia-krisiaren ondorioak jasaten jarraitzen du


2022ko energia-krisia gertatu zenetik hiru urte igaro badira ere, sektoreko kostuen mailak inoizko maximo historikoak izaten jarraitzen du. Horrek eragin negatiboa du sektorearen jardueran, eta etxebizitzen eta birgaitze-jardueraren azken prezioetan eragiten du, baita lanen bideragarritasun ekonomikoan ere.

Eustaten eraikuntzaren kostuen indizeak 2025ean urteko % 2,5eko hazkunde neurritsua izan zela erakusten duen arren (2024koaren antzeko hazkunde-erritmoa), igoera metatu horren ondorioz, kostuen indizea 120 puntutik gorako mailetara iritsi zen (eta segida historikoko erregistro handiena da hori).

16. grafikoa. Eraikuntzako kostuen indizea EAEn. 2011-2025



%. Urtetik urterako aldakuntza



Iturria: Eustat. Eraikuntza-sektoreko kostuen indizea


Horrela, sektorearen kostuen mailak gora egiten jarraitzen du, nahiz eta modu neurritsuan; horrek 2022an % 12tik gorako hazkunde-tasak izan zituen bilakaera altuak sendotzea eragin du. Horrek guztiak esan nahi du sektoreko enpresek beren jarduera ekonomikoaren jasangarritasuna eta bideragarritasuna nabarmen zailtzen dituen kostu-maila onartu behar izaten jarraitzen dutela.

Etxegintzaren azpisektoreko kostuek eraikuntzaren sektoreari dagokion aurreko analisian aztertutakoaren antzeko bilakaera izan dute. Horrela, etxegintzaren azpisektoreko kostuek gora egiten jarraitu zuten 2025ean, % 2,5eko tasan, eta, era berean, inoizko mailarik altuenetara iritsi ziren; zehazki, 122ko balioa lortu zuten Eustaten indizean.


Sektorearen kostuak osatzen dituzten hainbat faktoreak espezifikoki aztertzen baditugu, ikusten da horiek ere inoizko maximo historikoetara iritsi direla, bai lehengaien kasuan, bai eskulanaren kasuan. Lehengaien kostuek izan zuten hazkunderik handiena 2025ean, % 2,8ko igoerarekin, eta horrek jarraipena eman zion inflazioaren bilakaerari (Eustaten kostuen indizean 123 puntuko mailatik gora kokatzen da). Izan ere, % 2,8ko hazkunde-tasa hori 2024an erregistratutako % 0,9koa baino handiagoa izan zen; beraz, 2025ean goranzko joera argian jarraitu zuen, 2024an itxuraz geldialdia jasan ostean.

Bestalde, eskulanaren kostuak % 1,7 hazi ziren urtetik urtera 2025ean, 118 punturaino. Horrekin lotuta, eskulanaren kostuen hazkundean nolabaiteko neurritasuna antzematen da; izan ere, aurreko urteetan % 4tik eta % 5etik gorako tasetan ari ziren hazten.

17. grafikoa. EAEko etxegintzaren sektoreko lehengaien kostuen indizea eta eskulanaren kostua. 2015-2024



%. Urtetik urterako aldakuntza



Iturria: Eustat. Eraikuntza-sektoreko kostuen indizea


2026an, eraikuntzaren sektoreko eta etxegintzaren azpisektoreko kostuen bilakaerak gorakada handia izan du

2026ko lehen hilabeteetako datu berrienek berriro baieztatzen dute goranzko joerak bere horretan jarraitzen duela eta, gainera, 2026ko martxotik aurrera sektorearen kostuen bilakaeran gorakada handia gertatu dela; izan ere, urte arteko hazkunde-tasak (2025eko hilabete berarekiko) oso handiak izan dira.


Horrela, bai eraikuntzaren sektore osoaren kostuen indizeak, bai etxegintzaren azpisektorearen indizeak 130 puntuko langa gainditu dute 2026ko maiatzean, eta 2026ko apirilean % 7tik gorako hazkunde-tasak ere erregistratu dituzte.

2026ko ekainean (horixe da informazioa eskuragarri dugun azken hilabetea), badirudi kostuak apur bat moderatu direla, eta indizea 128 puntutik behera jaitsi da. Datozen hilabeteetan beherakada horrek jarraipena duen ikusi beharko da.

18. grafikoa. Eraikuntza-kostuen indizea 2025-2026an*



Urtetik urterako aldaketa %



Iturria: Eustat. Eraikuntza-sektoreko kostuen indizea
*Behin-behineko datuak.

5.- SEKTOREA BULTZATZEKO ESTRATEGIAK

2022an lehen aldiz sinatutako 2036ko Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunak epe luzerako apustu estrategikoa ekarri zuen, eraikuntzaren sektoreko eragile nagusiekin lankidetza publiko-pribatuko esparru estrategikoa ezartzeko.

Horretarako, Itunak, lehentasun estrategikoen artean, eraikuntzaren sektorea bultzatzeko helburua jasotzen zuen. Helburu nagusien artean, sektoreko prestakuntza eta talentuaren garapena eta berrikuntza-proiektuak babestea, emakume gehiagok sektorean sartzeko aukera izan dezaten sustatzea eta sektorearen industrializazioa sustatzeari arreta berezia eskaintzea zeuden.

Horrekin, Euskadiko etxebizitza-larrialdiaren egoerari ahalik eta erantzunik berehalakoena ematen lagundu nahi zen. Egoera hori aurreko urteetan metatutako etxegintza-defizitaren ondorio da, prezio eskuragarrian dagoen etxebizitzaren eskari handiari erantzuteko.

Horrela, Itunak berariazko ildo estrategiko bat jasotzen zuen (4. estrategia), lehentasunezko hiru jarraibide estrategiko biltzen zituena:

1.- Sektorean berrikuntza sustatzea eta babestea, bereziki tamaina txikiagoko enpresetan, berrikuntza zentzu zabalenean ulertuta, produktuei eta zerbitzuei, prozesuei, merkaturatzeari eta kudeaketari dagokienez. Zehazki, erronka nagusietako bat sektorearen industrializazioan eragitearekin lotuta dago. Horretarako, helburu nagusi gisa ezarri zen 2036rako babestutako sustapen publikoen gutxienez % 65ek % 50etik gorako industrializazio-maila lortzea.

Arlo honetako azken berrikuntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak ERAIKI HUB jarri du martxan, eraikuntza industrializatuko azeleragailua, 2030era arte 32 milioi euroko aurrekontua izango duena. Build: INN klusterrarekin eta Tecnalia zentro teknologikoarekin batera sortua, obra-epeak erdira murriztea eta etxebizitza-parke publikoa sustatzea du helburu, prozesu modularren eta digitalizazioaren bidez. Era berean, Eraikuntza Industrializatuko Ziurtagiria garatu nahi du, merkatuari konfiantza emateko eta proiektuen finantzaketa errazteko.

2.- Sektoreko prestakuntza eta talentuaren garapena sustatzea eta babestea, bai sektorean sartzeko hasierako prestakuntzari dagokionez, bai lanbide-esperientzia duten pertsonen birkualifikazioari dagokionez, eraikuntza- eta antolaketa- eta kudeaketa-teknika modernoenetara sarbidea izan dezaten.

3.- Sektorea laneratzeko eta garapen profesionalerako bide erakargarriagoa izan dadin laguntzea, bereziki emakumeen kasuan, sektore berdinzaleagoa lortzeko.

Itunaren emaitza gisa, Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroa sortu zen. Foroak hainbat lantalde ditu, eta talde horiek dagoeneko martxan daude. Horien bidez emaitza eraginkorrak lortzea espero da, sektorearen etorkizunean eragin positiboa izan dezaten. Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroaren lehen osoko bilkuran administrazio publikoetako ordezkariek, enpresaburuen elkarteetako ordezkariek eta sektoreko gizarte- eta lanbide-erakundeek parte hartu zuten.

Eraikuntzaren sektoreari dagokionez, eraikuntza-prozesuetan berrikuntza teknologikoa bultzatzeko sektoreko mahaia sortu zen: eraginkortasun handiagoa, ingurumen-aztarna txikiagoa eta enplegu egonkorragoa sustatzeko. Horrela, Eusko Jaurlaritzak sektoreak EAEko ekonomiarako duen eginkizun estrategikoa aitortzen du. 2025eko ekainean Foroaren lehen bileran parte hartu zuten eragileek egindako gomendioak honako taula honetan laburbiltzen dira.

EUSKADIKO HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA FOROA. "Industrializazioa, eraikuntzaren sektorea modernizatzeko bektore gisa" lantaldea. 2025eko EKAINA

1. gomendioa

"Eraikuntza industrializatuaren sektorea garatzeko, erakundeen laguntza eta akonpainamendua bultzatzea".

- 1.1. Laguntza ekonomiko eta finantzario integralerako esparrua sortzea (dirulaguntzak, kapital-partaidetza, abalak, aseguruak eta eskaeren finantzaketa).
- 1.2. Prozesu industrializatuak hartzen dituzten enpresentzako pizgarri fiskalak eta arau-pizgarriak sustatzea.
- 1.3. Kontratazio publikoa palanka gisa erabiltzea, lizitazioetan industrializazioa eta BIM exijituz edo baloratuz.

2. gomendioa

"Prestakuntza arin eta malgua bultzatzea, sektorearen industrializazioari eta eskumen-igoerari egokitua".

- 2.1. Industrializazioa arkitektura eta ingeniaritzako curriculumetan txertatzea, sektorean dagoeneko lanean ari direnentzat formatu malguak eskainiz.
- 2.2. Industria-arloko LH indartzea (mekatronika, robotika) eta eraikuntza industrializatuari buruzko titulazio espezifikoa sortzea.
- 2.3. Eraikuntzako ohiko prestakuntzan eduki industrial gehiago txertatzea.
- 2.4. Prestakuntza-edukiak urtero berrikustea, eguneratuta mantentzeko.
- 2.5. Komunikazio-kanpainak abiaraztea, talentua sektorera erakartzeko.
- 2.6. Laneko Fundazioaren, prestakuntza-zentroen, enpresen, BUILD:INNen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetza-esparruak sortzea.

3. gomendioa

"Berrikuntza eta ziurtapena sustatzea eraikuntza-sektore industrializatuagoa eta iraunkorragoa bultzatzeko palanka estrategiko gisa".

- 3.1. I+G+b-rako laguntza indartzea, programetarako sarbidea, *ad hoc* pizgarriak eta living lab-ak eskainiz.
- 3.2. Produktu berritzaileak jasangarritasunaren erreferente bihurtzea, laguntzak ingurumen-irizpideekin lotuz.
- 3.3. Eraikuntza industrializatuaren euskal marka/label bat sortzea, sektorea nazioan eta nazioartean kokatzeko.
- 3.4. Eraikuntza Industrializatuko Hub bat garatzea, zentro teknologikoak, klusterrak, enpresak eta elkarteak bilduko dituena.
- 3.5. Industrializazio-mailari buruzko ziurtagiri ofizial propioa, arina eta malgua, abian jartzea.
- 3.6. Eraikuntza industrializatura bideratutako oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzea babestea.

Foroaren bigarren bileran, 2025eko urriaren 13an, eragile guztiek sektorearen garapenari, prestakuntzari, berrikuntzari eta ziurtapenari buruzko 15 gomendio edo neurri nagusiko multzoa baliozkotu zuten.

1. SEKTOREAREN GARAPENERAKO erakundeek eman beharreko laguntza eta babes irmoa bultzatzeko neurriak
- 1.1. Eraikuntza industrializatuaren sektorearen garapenerako berariazko laguntza ekonomiko eta finantzarioko esparru integrala ezartzea.
- 1.2.- Sektorearen garapena babestea, pizgarri fiskalen eta araudi mailako pizgarrien bidez.
- 1.3.- Kontratazio publikoa palanka estrategiko gisa erabiltzea, eraikuntza industrializatuaren sektorearen garapena eta ezarpena bizkortzeko.

2. Sektorearen industrializaziora eta gaitasunen hobekuntzara egokitutako PRESTAKUNTZA arina eta malgua bultzatzeko neurriak
- 2.1.- Eraikuntzaren industrializazioa txertatzea eraikuntza industrializatuaren diseinatzaile, preskriptore eta gauzatze-koordinatzaile gisa jarduten duten profil profesionalen prestakuntza-curriculumetan (arkitektura eta ingeniaritza, goi-mailakoak zein teknikoak), bai hasierako prestakuntzan (graduak), bai espezializazioan (graduondokoak eta bestelako espezializazio-prestakuntza).
- 2.2.- Neurri handiagoan, funtsean industria-izaera duten lanbide-heziketako espezialitateetako profesionalak (adibidez, mekatronika, robotika...) eta jasangarritasunaren arloko profesionalak izatea.
- 2.4.- Prestakuntzaren edukiak urtero berrikustea, sektoreak bizi duen bilakaera azkarrari erantzun diezaioten, eta, horrela, prestakuntza-ibilbideen etengabeko eguneratzea bermatzea.
- 2.5.- Komunikazio- eta zabalkunde-kanpainak sortzea, eraikuntzaren industrializazioaren abantailak ezagutarazteko. Kanpaina horien funtsezko elementuak izan beharko dute honako hauek: talentua sektorera erakartzea eta sektoreko prestakuntza-jarduerak ezagutaraztea.
- 2.6.- Lankidetza-esparru eraginkorrak txertatzea, honako hauek barne hartuko dituztenak: Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Lan Fundazioa, prestakuntza-zentroak, enpresak eta haien elkarteak, BUILD:INN – Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Klusterra, eta Eusko Jaurlaritza bera, prestakuntza sektorearen lehiakortasunerako bektore bihurtzeko.

3. BERRIKUNTZA ETA ZIURTAPENA palanka estrategiko gisa sustatzeko neurriak, sektore industrializatuagoa eta jasangarriagoa bultzatzeko

- 3.1.- I+G+b-rako laguntzari dagokionez, honako elementu hauek jaso beharko dira:
  - 3.1.1.- Eraikuntzaren sektoreko enpresei lehendik dauden programetara eta Euskadi 2030 Industria Planaren aplikazioaren ondorioz sortutako laguntza-lerro berrietara sartzea erraztea.
  - 3.1.2.- Sektorerako *ad hoc* pizgarri berriak abian jartzea.
  - 3.1.3.- Living lab-ak eta test bed-ak garatzea, bai eta merkatura hurbil dauden berrikuntza-proiektuak ere, lankidetza publiko-pribatuaren bidez kudeatutako espazioetan.
  - 3.1.4.- I+G+b arloko lankidetza-proiektuen garapena sustatzea.
- 3.2.- Produktu propio berritzaile eta bereizgarriak jasangarritasunaren arloan ere erreferente izan daitezen apustu egitea, bai produktuei dagokienez, bai horiekin lotutako produkzio- eta logistika-prozesuei dagokienez.
- 3.3.- Euskadiren bereizgarria izango den eraikuntza industrializatuaren marka sustatzea, produktuen kalitatea ikusgarri egiteko eta estatuko zein nazioarteko merkatuan kokatzeko..
- 3.4.- Eraikuntza Industrializatuko Huba garatzea, eragile zientifiko-teknologikoak (zentro teknologikoak, unibertsitateak eta Lanbide Heziketako zentroak), klusterra, elkarte profesionalak eta dauden enpresak barne hartuko dituena, lankidetza eta ezagutza-trukea sustatzeko gune izan dadin.
- 3.5.- Ahalik eta lasterren, eraikuntza industrializatuaren Euskadiko sektorea bultzatzeko ziurtapen-sistema ofizial propio, arin eta malgua abian jartzea.
- 3.6.- Eraikuntza Industrializatura bideratutako Teknologian Oinarritutako Enpresa Berrien (TOEB) garapena babestea.

Duela gutxi, 2026ko ekainean egindako Foroaren hirugarren bileran, 2022-2036ko Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunaren ezarpenaren jarraipen-txostena aurkeztu zen. 4. ardatzari dagokionez, hau da, sektorearen bultzadari lotutako ardatzari dagokionez, honako aurrerapen hauek jaso ditu.

4.1. estrategia Sektore baitan berrikuntza sustatzea eta bultzatzea

Prestakuntzari dagokionez, EHUrekin batera ari dira lanean Etxebizitza Publikoaren Masterraren eskaintzan, lurralde-antolamenduko, hirigintzako eta etxebizitzako planen bideragarritasunari eta jasangarritasunari buruzko ikastaroetan, eta etorkizunera begira etxebizitzaren katedra sortzeko lanean. Eraikuntzaren Klusterrak, elkargo profesionalek eta Lan Fundazioak prestakuntza-eskaintza zabala ere eskaintzen dute. Era berean, Nafarroako BAI Fundazioarekin lankidetzan aritzeko oinarriak ezartzen ari dira.

ERAIKAL programaren 2026ko deialdiak Euskadiko etxebizitza-eraikuntzaren kalitatea, jasangarritasuna eta berrikuntza indartzen ditu. Gainera, industrializaziora bideratutako zuzkidura bikoiztu du, eta dirulaguntza-lerroa barne hartzen du egokitasun teknikoaren ziurtagiriak eta produktuaren ingurumen-adierazpenak lortzeko.

Halaber, ERAIKAL HUB sortu da, enpresen, zentro teknologikoen, unibertsitateen eta administrazioen arteko lankidetza-gunea, sektorearen industrializazioa, berrikuntza, prestakuntza eta estandarizazioa bultzatzeko. Azkenik, Etxebizitza Babestu Industrializatuaren Ziurtagiri Ofiziala sortzeko lanean ari dira, haren kalitatea, trazabilitatea eta jasangarritasuna bermatzeko.

4.2. estrategia Prestakuntza eta talentuaren garapena sustatzea

2024-2025 ikasturtean, Lanbide Heziketako Eraikuntza eta Obra Zibila lanbide-familiak 649 ikasle zituen matrikulatuta, eta horietatik % 33 emakumeak ziren. 2023-2024 ikasturtean, Euskadiko unibertsitateek 1.032 ikasle erregistratu zituzten eraikuntzarekin lotutako titulazioetan, eta emakumeen presentzia % 60koa izan zen.

Era berean, eraikuntzaren industrializazioa prestakuntza-curriculumetan txertatzeko lanean ari dira, Lanbide Heziketako Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutuaren (IVAF) bidez eta LHko ikastetxeekin lankidetzan.

4.3. Sektorea aukera profesional erakargarriagoa eta berdinzaleagoa bihurtzea

Saila komunikazio- eta zabalkunde-kanpainak lantzen ari da eraikuntzaren industrializazioaren abantailei buruz, eta kanpaina horiek Euskadiko eraikuntza industrializatuaren marka sortzera ere bideratuta daude.

Bestalde, 2025-2027 Etxebizitzaren Gida Planari dagokionez, berritasun gisa, ardatz estrategiko espezifiko bat (4. ardatza) txertatu zen, eraikuntzaren sektorearen modernizazio jasangarri eta eraldatzaileari eskainia, hiru estrategia zehatzen bidez.

Ardatz horretako 4.1. Estrategia sektorearen finantzaketa bultzatzera bideratzen da, hainbat tresna berritzaileren bidez. Helburua zubi-lana egitea da, industrializazioaren estatuko PERTEaren funtsak erakartzeko eta kapital hori zuzenean tokiko enpresa-sarera bideratzeko. Prozesuak eraldatu behar dituzten enpresentzat, Euskal Finantza Institutuak (EFI) kreditu bigunetarako eta inbertsioaren arriskua murrizteko abal publikoetarako lerroak gaitzen ditu.

4.2. Estrategiak eraikuntza modularra bultzatzea du helburu. Eraikuntza-jardueraren zatirik handiena aurrefabrikazioko industria-lantegietara eramatea da helburua, eta horrek produkzio-epeak laburtzea ahalbidetuko du. Eredu horrek enpleguaren kalitatea hobetzen ere lagun dezake. Estrategia horrek Euskadiren erronka demografikoari aurre egiteko funtsezko osagai instituzionala ere jasotzen du: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiekin batera Koordinazio Soziosanitarioko Mahaia sortzea. Helburua da zaintzan espezializatutako profesionalek irisgarritasun- eta bizigarritasun-beharrak zehaztea, etxebizitza publikoen sustapen berriak egokituta egon daitezen eta biztanleriaren zahartzeari benetako erantzuna eman diezaioten.

Amaitzeko, 4.3. Estrategiak karbono-aztarna txikia duten zero kilometroko materialen erabilera sustatzen du, eta, aldi berean, genero-ikuspegia txertatzen du hiri-diseinuetan. Bestalde, Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen eginkizuna indartzen da, herritarrei arreta eta informazio pertsonalizatua ematea errazteko.

6. ONDORIOAK

1. 2024 eta 2025 artean, 357 establezimendu galdu ziren EAEko eraikuntzaren sektorean. Horrela, 2025ean guztira 19.076 establezimendu zenbatu ziren, eta % 1,8ko beherakada izan da 2024ko 19.433 establezimenduen aldean. Epe luzera begirako ikuspegitik, 17.000 establezimendu baino gehiago galdu dira aurreko hamarkadako atzeraldiaren hasieratik.

2. Nolanahi ere, eraikuntzaren sektoreak bilakaera positiboa izan zuen 2025ean. Eraikuntzaren sektoreko BEGak % 3,7 egin zuen gora, eta 5.000 milioi euroko langa gainditu zuen. Beste nolabait esanda, ia bikoiztu egin da sektoreak 2024an izandako hazkundea, urte hartan sektoreko BEGa % 2 handitu baitzen.

3. Testuinguru horretan, eraikuntzaren sektoreak oso ekarpen positiboa egin dio EAEko ekonomiaren dinamismo handiagoari 2025ean eta 2026ko hasieran**.** Sektorearen BEGaren 2025eko hazkunde handiak (+% 3,7) nabarmen gainditu zuen EAEko ekonomia osoak izandako gorakada (+% 2,3). Horrela, eraikuntzaren sektoreak EAEko ekonomia osoaren % 5,6 hartu zuen, 2024an baino hamarren bat gehiago.

4. Sektorearen bilakaera are positiboagoa da 2025ean eta 2026ko hasieran enplegua sortzeko izan duen gaitasuna aztertzen badugu. Eustatek emandako datuen arabera, eraikuntzaren sektoreko enplegua % 6,8 hazi zen 2025ean, eta 60.000 pertsonari eman zien lana; 2024an baino 3.800 pertsona gehiago (huraxe izan zen 2011tik izandako erregistrorik onena). Dinamika positibo hori areagotu egin da 2026ko hasieran, eta 65.000 landun baino gehiago gainditu dira Eustatek eskuragarri dituen azken datuen arabera (datu horiek 2026ko bigarren hiruhilekoari dagozkio).

5. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistikak (EEEE) aukera ematen du etxegintzako jarduerak eta birgaitze-jarduerak izan duten bilakaera desberdina aztertzeko. Birgaitze-jarduerak eraikuntzaren sektorea bultzatu du azken urteotan, eta obra handiko lizentziei dagokienez inoizko maximo historikoak erregistratu ditu. Itxuraz, ordea, 2023tik hazkunde hori moteltzen ari da. Edonola ere, birgaitze-jarduerak inoizko mailarik gorena lortu zuen 2025ean, guztira obra handiko 3.474 lizentzia erregistratu baitziren. Hala ere, hazkundea oso moderatua izan zen, 2024an baino 18 lizentzia gehiago baino ez baitziren erregistratu.

6. Obra berriko lizentzien kopuruak berriro egin zuen behera 2025ean: 335 lizentzia zenbatu ziren; hau da, % 3,2ko jaitsiera 2024aren aldean. Nolanahi ere, badirudi beherakadaren erritmoa moteldu egin dela 2023an eta 2024an erregistratutakoarekin alderatuta (-% 25 eta -% 10, hurrenez hurren). Hain zuzen ere, 2026ko lehen hiruhilekoari dagokion datua positiboa da: obra berriko lizentzien kopuruak 100 lizentziako mugarria gainditu du, 2025ean erregistratutako batezbestekotik nabarmen gora; urte horretan, batez beste, 83 lizentzia erregistratu baitziren hiruhileko bakoitzeko.

7. Etxegintza-jardueran eragin negatiboa izan duen faktoreetako bat 2022tik aurrera etxegintza-kostuek izan duten gorakada handia da. Hiru urte geroago, sektoreko kostuen mailak inoizko maximo historikotan jarraitzen du, eta horrek eragin negatiboa du sektorearen jardueran eta etxebizitzen eta birgaitze-jardueraren azken prezioetan, baita eragiketen bideragarritasun ekonomikoan ere.

8. 2025ean, Eustaten eraikuntzaren sektoreko eta etxegintzaren azpisektoreko kostuen indizeek % 2,5eko urte arteko hazkunde neurritsua izan zuten. Hazkunde horren ondorioz, indizea 120 puntutik gorako mailetara iritsi zen, segida historiko osoko erregistrorik altuena. 2026ko hasiera are okerragoa izan da sektorearentzat: bai eraikuntzaren sektore osoaren kostuen indizeak, bai etxegintzaren azpisektorearen indizeak 130 puntuko langa gainditu zuten 2026ko maiatzean, eta 2026ko apirilean % 7tik gorako hazkunde-tasak ere erregistratu zituzten.

9. Testuinguru horretan, EAEko etxebizitza-politika sektorearen jarduera bultzatzen saiatzen ari da, sektorea palanka estrategikoa baita 2022-2036ko Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunak planteatzen dituen erronka estrategikoei aurre egin ahal izateko.

10. Horrela, 2036ko Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunak, 2022an lehen aldiz sinatu zenean, berritasun handia ekarri zuen EAEko etxebizitza-politikaren diseinuan, lehentasun estrategikoen artean eraikuntzaren sektorea bultzatzeko helburua jaso baitzuen. Horretarako, helburu nagusien artean sektoreko prestakuntza eta talentuaren garapena eta berrikuntza-proiektuak babestea, emakume gehiagok sektorean sartzeko aukera izan dezaten sustatzea eta sektorearen industrializazioa sustatzeari arreta berezia eskaintzea jasotzen ziren.

11. Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroan oinarritzen da. Foro hori 2025ean bildu zen lehen aldiz. Bertako partaideak dira administrazio publikoak, sektoreko patronalak, gizarte-erakundeak eta elkargo profesionalak. Foroa hiru lantalderen bidez egituratzen da; horietako bat espezifikoki sektorearen modernizazioa eta berrikuntza sustatzera bideratuta dago, industrializazio-prozesuak eta kalitatezko eta profesional berrientzat erakargarria den enplegua sortzeko duen gaitasuna bultzatuz.

12. Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunak planteatzen duen epe luzerako apustu estrategiko horrekin bat etorriz, 2025-2027 Etxebizitzaren Gida Plana izan zen sektorearen sustapenari berariazko ardatz monografikoa eskaini zion lehen etxebizitza-plan zuzentzailea. 4. ardatzean sektorea bultzatzeko hainbat neurri eta jarduketa jasotzen dira. Besteak beste, hauek: berrikuntza finantzaketa-tresna berrien bidez, sektorearen industrializazioaren sustapena, prozesu burokratikoen murrizketa, birgaitzearen arloan herritarrei eskaintzen zaien arreta eta zerbitzua hobetzea, eta foru-aldundietako gizarte-ongizateko departamentuekin koordinazioa hobetzea, etxebizitzak zahartzen ari den biztanleriaren beharretara egokitzeko.

13. Ildo horretan, sektorearen industrializazioa sustatzen duten neurriak funtsezkoak dira. 2036rako helburu espezifiko gisa ezarri da babestutako sustapen publikoen gutxienez % 65ek % 50etik gorako industrializazio-maila izatea. Hori dela eta, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak ERAIKI HUB bultzatzea. 2030era arte 32 milioi euroko aurreikusitako inbertsioarekin, eta Build:INN eta Tecnaliarekin batera sortua, ERAIKI HUBek obra-epeak erdira murriztea du helburu, sektorean aurrefabrikatutako moduluak eta digitalizazio-prozesu zabalak ezarriz, eta proiektuak finantzatzeko konfiantza emango duen eraikuntza industrializatuko ziurtagiria garatuz.